



1. BEHE





*def. (iz.) behe: "Edozein gauzaren barrenean,
lurretik gertuen dagoen aldea".*

Euskaltzaindia pasa egin zen behea zer den azaldu nahian. Lurretik gertuen dagoen aldea da behea, eta lurretik gertuen geundela pentsatzen genuenean elkartu ginen gu.

Gauzak hain sinpleak omen dira, bi hankak tinko finkaturik pausuak ematen hastea. Hori lurretik egiten dugu: etxeek zimenduak, idazkiek orri zuri bat.

Zertarako galdetu ziguten eta guk: *fomento de la lengua vasca mediante textos literarios*, edo hori jarri beharko ligukete gu fabrikara etiketatzera bidaltzean. Berriki lortutako sasi-heldutasunaren babesgabezia zulo literario-politiko-filosofiko-zientifiko-zinetiko-zinefilo (???) hondogabean hazteko, edo pedanteria post-ironikoaz trufatzeko. Erdibidean, maileguan utzitako liburuetako marginak apuntez betetzen dituztenak gara.

Behe-mailako testuek osatuko duten joan-etorri bakoitza, oinarria sortuz lortzen den bolumenaren ertza, irakurle inozo batek potentzialitaterik antzemango duen asmoz.

Ulertu nahi duzun moduan, baina marraz
gaitzazu masa puntual bezala.

Behe Banda





Behetik ikusten ditut nire eskuak

Zer sortu dezakegu gutako bakoitzak hari berdinetik?

Non gerturatzan gara, noiz urrundu?

GAUAK GOITIK BEHERAKOAK DIRENEAN

23:04

Behetik ikusten ditut nire eskuak:

bi itzal handi mesanotxeko lanpararen
argitan.

Ohean etzanda eta sabaiari so,
behetik gora eraikitzen da logelako
mikromundua,
bertikalki.

Behean ni eta zu.

Goian eskuak, sabaia
eta

perspektiba kontua dela diotenak.

02:56

Eskuinera.

Ez, eskuina ez.

Ezkerrera.

Hobeto, baina ez.

Gora begira jarri naiz azkenean,
eskuak jaso.

Izara nahastu eta burko izerdituen artean,
eskumuturreko erloju digitalak ia hirurak direla dio.

Hasperen sakon bat.

Faltan botatzen dut erlojurik gabe
ibiltzen ginen garai hura:

hautzaroa edo.

Ez zuen axola

hirurak,

laurak

edo bostak izan.

Koloretako pultserak janzten genituen
orduro.

05:23

Amets bat izan dut.

Nekazaria nintzen, atxurrarekin lurrari
kolpeka.

Eskuak altxatu eta

behetik gora ikusi ditut eguzki argitan


nabarmendutako


A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Ezkerre', is located in the bottom right corner of the page.

maskur eta orbainak
sei atzamarreko gorputz-adar inperfektuetan.
Logela honetan
markatu gabeko bi azalera leun ditut
eskutzat,
lurra beharrean ordenagailuko teklak
kolpatzen baititut egunean
zortzi orduz.
Atzo zera idatzi nuen,
mina harramazketan kuantifikatuz gero,
zilegi dela dena ondo doala uste izatea.
Gero Ctrl + Z-ari eman nion.

06:59

Zaila da behetik gora bizitzea.
Bera, ni, zu,
Sisifoak
maldan gora.
Gaur etxean geldituko naiz.
Nazkatuta nago,
akituta,
saminduta.
Nola ikusten dira eskuak goitik behera?





07:00


Alarmak jo bezain pronto
ohetik atera

eta

lanerako prestatu naiz.

Iraultzaileak garelako, baina ez hainbeste.

Maddi Agirre




BEHETIK IKUSTEN DITUT NIRE ESQUAK

Goizeko ordu txikitan
etxerako bueltan egiten diren
hausnarketa horiekin bete dut koadernoia
Goizean goiz irakurri
eta ez hanka
ez buru
ez eta zentzurik ere
topa dakizkiekeen horiekin
Esnatzean
boligrafo beltza eskuan zirriborroz
estaltzen ditut burutaziook.

Berriro irekitzen dut koadernoia
eta bi lerro idazten ditut
hiru borratu
hasperen egin
eta berriz ere itxi egiten dut.

Asperdura goraiatzan dut
bat-batean zerbait zoragarria idatziko dudalakoan
nahikoa denbora ematen badiot neure buruari

Eta beste behin
irekitzen dut koadernoia




eta lerro erdi idazten dut
zazpi borratu
hasperen egin
orria apurtu
zamarretara bota
eta berriz ere itxi egiten dut

Ez ikusiaren plantak egitea da
dirudienez
nire dote artistiko gorena
aitzakia dotorez lan traketsak justifikatzea
sasi-oratoria hankamotza.

Eta enegarrenez
irekitzen dut koaderno
ez dut lerro puta bat ere idazten
beste denak borratzen ditut
hasperen egin
boligrafoa apurtu
sakelekoa ireki
benetako literatura irakurri
samindu
eta behetik ikusten ditut nire eskuak.

Harri Diaz de Heredia Matanzas



ESKUEN MUSEOA

Behetik ikusten ditut haien eskuak,
nire eskuak bailiran
arrokei maskarrekin helduz.
“ke será de mi” galdetu du
Raimundok bozgorailuetatik.

Behetik ikusten ditut zuen eskuak,
igitaia azkazal janekin helduz,
lokaztutako lurretatik atera nahian,
ta eroriko dira.


Behetik ikusten ditut nire eskuak,
itxaron gelako aire girotuak hoztuak,
hartu gabeko erabakiak agerian,
kontraesanak hatz bizarretan,
errudun, geldi egoteak errudun.

Behetik ikusten nituen gure eskuak,
mahai azpian elkarlotuak,
grafito usaindun hatzak,
zerbait sortzen ari garelako sentsazioa
azalean.



Irati Fdz. de Okariz Irureta

ESKOLARA



Zapatak jartzean konturatu naiz
galtzerdiak atzekoz aurrera jantzi ditudala
baina ez dago aldatzeko denborarik

- Berandu goaz!

garrasia entzun

motxila soinean jantzi eta korrika jaitsi ditugu eskailerak

portalera heltzean eskutik hartu

eguneroko bidea hasi dugu

arnasa ikus daiteke ahotik ihesi

6° diruditen 10°-en ondorio

baina jakearen azpian ez da hotzik sumatzen

larru gorritan dauzkada eskuetan ere ez

larru gorritan daukadan ezker eskuan ere ez

ez baitago biluzik

bi azalek estatzen baitute

zureak eta nireak

behetik ikusten duzu nire eskua

eta behetik ikusten dut zure eskua

ikusi bakarrik balitz

kontaktu horrek goitik behera irakurri dezake

momentua

gaur haserrea

amorrua duzu barnean


niri errieta egiteko gogoa

ez baituzu berriz ere berandu heldu nahi

nire eskuko tolesdura guztiei ezin izan diezu ezkutatu
baina ezkutuan gordeko duzu

herenegun lilura
ospitaleko lau horma zurien artean
begiak ireki ere ezin nituenean
hatzamar bakarra hartu nizun eskuarte (ahal nuena)
nahikoa
soberan
zure begien dirdira
lehen aldiz sentitzeko

atzo babesa
ordu txikietan
oihuka esnatu zintudanean
pausu isilean
beldurra usaindu
nire ondoan etzan
lasai lo egin nezan
ohe azpiko munstroaz ahazteko
eman zenidan
bihar zuhurtzia
osaba izeben artean
gabonetako apaingarri artean
barre algara artean
osabak
nola ez
GAIA ateratzean



lehertzera noanean
eskua hartuko didazu
oihuen artean
arrazoia galdu ez dezadan

etzi indarra
nire eskuetatik
zure hanketara
besoetara
bizkarrezurrera
zutik jarri eta bazkaltzera etortzeko
luzatuko dizut


edonoiz eskuarekin ikusi nahi zaitut
ama
gela hotzeta betetzen duzu maitasunez
kobazulo ilunena egiten duzu etxe
ekaitz bortitzena baretzeko gai zara
edonoiz
nahi ez duzunean ere luzatzen didazu
ez dut esku hau askatu nahi
ez dut mundua bakarrik ezagutu nahi
ez dut biluzik sentitu nahi
ez dut hotza dastatu nahi
baina

ohartu orduko
beheak irrist



haserrea amaitu da
txalapartaren hotsarekin lurreratu
zuri muxu bat eman
eta korrika
eskolara sartu
naiz
eskutik berriz noiz helduko nauzun zain

Irati Larrañaga





BEHETIK IKUSTEN DITUT NIRE ESKUAK

Amona begiraten dut:

Azal biguineko behatz oker eta ahulek
galdu dute ekiteko beharra.

Dardartia da haien eginahal bakoitza,
beso zaintzaileak agertzen baitira
traba besterik ez dena salbatzera.

Amore emateko aukera ere galdu du
mugimendu orori aurreratzen zaiolako
gazte gelditzen zaion helduen aitakeria.

Behatzez ereindako muinoiak dira
haien begietara ukabil endurtuak.

Ez dakit zer lekutan den haren gogoa
egin dezakeena
egin gabe eta isilik gelditzen denean.
Adikunez nire pertsonaz jabetu
eta behetik ikusten ditut nire eskuak
zahar bihurtuta.

Kezkatzen naiz haien paperaz,
zer izango naizen heldulekuak

galtzen ditudanean.

Lo hartuko dute eskuek
pasioarekin batera
Idatzi ere ezingo dudanean.

Errefusatu ezin
denboraren joanak
eskutik emanda
eramango nauela
makur baina soleituta.

Irati Oskoz






Artefaktua eta ni

Subjektua eta objektuaren arteko mugaz.

ARTEFAKTUA


Buelta eman eta hasi da atzera kontaketa. Iratzargailua itzali hamargarren aldiz, korrika altxatu galtzarpeetan usain txarrik ez duen kamiseta jantzi, igogailua deitu, zapatak jantzi, motxila hartu ta igogailura sartu, ordena horretan, ezin baita area partikula bat bera ere galdu. Eta korrika iritsi 6:24ko metrora, hurrengoarekin ez bainaiz 6:40 autobusera iristen. Ordu betera iristen ez den bidaia, ordu betera iristen ez den siesta goiztiarraren sinonimo. Puntual iristen naizen toki bakarrera iristeko, unibertsitatera; lasai ez naiz 30 minutu lehenago heltzea gustatzen zaion horietakoa, baina Bizkaibusen esku dagoen bitartean horrela izan beharko. Konturatu orduko irakaslea hor dago diodoa gora diodoa bera, zuzen polarizatu alderantziz, oraindik goizegi da neuronetatik korronea pasatzeko. Makinako kafe txarra izaten da normalean erremediorik onena esnea ta azukrearekin batera kafea ahazten ez zaionean, hainbeste ingeniari ta batek berak ere ez du konponduko. Krask soinuarekin itzuli dut begirada erregela apurtu berri duen irakaslearengana,



makurdura azaldu nahian jadanik 7 apurtu ditu, gure ulermen maila garesti aterako zaio. Txirrinik gabeko patioa baino gauza hoberik ez dago egunean, haizea hartu, nahiz eta gaur igual hotzegia den lagunen arteko saltseoarekin berotzeko. Berriz ere, lau paretak, 2 zutabe eta 50 eserleku deseroso tartean erlojuari begira nago minuturo, hemendik hanka egiteko seinalearen zain. 14:30ak eman baino lehen, tiza hotsa isilduko ez dela dirudienean, “biharko utziko dugu” esandiaren plazerra. Autobus geltokian gorputza dardarka daukat betiko bidaia egiteko zain, autobusa, metroa, etxea. Gaur amarena izan da, ta ia ikusi ere ez dut egin jatekoa, usaindu orduko barrura. Motxila utzi, telazko poltsa hartu eta ikaslearen etxerako bidea hartu dut. Frantsesez zenbakiak ikasi bitartean begiak kliskatzeko gogoak badute ere batetik hogeirakoak ikasi ditugu, eta Mainerrek edo Mikelek marrubi gehiago zeinek jan duen ere jakin dugu. Orduterdia pasa orduko Herrikorako bidea hartu dut, gazte errebelde baten kronika. Euskal herria defendatu ostean, jada joateari utzi diodan autoeskola paretik pasa naiz (eta ez karneta atera dudalako) dantza eskolako atera iristeko. Erdizka ta jauzi artean, egiten ez dakidan entretxantan ebitatu nahian izerditan blai 21:30ak pasa direlarik, etxeko atea ireki dut. Sukaldera joan hozkailua ireki eta atzo egindako bazkariaren sobrak berotzen diren bitartean gorputza ur berotan sartu eta pijama janztera behartu dut. Azken denbora partikula ere aprobetxatzeko ohean etzan naiz

ordenagailua soinean hartu dut hizkien jainkoaren deiaren esperoan. 2 lerro idatzi eta 3 borratu ostean, erlojua begiratu eta iratzargailuari jotzeko 6 ordu falta direla ikustean, goizean buelta emandako area erlojua gelditzea erabaki dut, segunduak desagertaraztea, partikularik txikiena ere geldiarazi nahian, mundua geldiarazi nahian, baina erlojuko orratza ez da pausatu. Nahi eta ezin biharamuna saihestu, atzeratu, area erlojuak martxan jarraituko du, eta bihar gauza bera egingo dut, eta etzi, eta asteburua iristean, ikasi, euskal herria beste pixkat defendatu, kaña pare bat hartu eta berriro botatzera. (i)Noiz kraskatuko da area erlojua? (i)Noiz bukatuko da area? (i)Noiz izango dut arnasteko momentu bat?

Irati Larrañaga Etxebarria



MUSEOAN ARTISTA NAIZ, AMA

Pareta zurietako egoitzaren atarian,
artistak odol gorriz ditu eskuak.

Gauzatu beharreko homizidioaren froga dirudien arren,
honakoa datorren "harakiri"-aren aurreikuspena besterik
ez da.

Gaurko egun bereziak
traje dotorez jantzi ditu bere gorputz-adarrak.
Bide bakarra bistan,
marko zahar-berrituetatik barrena,
dena barrutik aldatzearen esperantzarekin doa
XXXX.


Eskeleto atrofiatu bat dugu hilik
museoaren zoruan:
"Iraultza" du izena.

Arte kritikoen irribarreak baieztatzen du
obra honen arrakasta,
errentagarritasuna.
Forma eta edukia beteko ditu
beraz
diruaren erreferentzialtasunak.



Abangoardiaren martirrak
nahita edo nahi ez
publikoa entzungor uztea erabakitzen du
beste horien hizkuntza mintzatzearen alde:
tonu oldarkorrear,
haien hitzak erabiltzen dituela.

Aldiz, ukaezina da
irudi zaurgarriaren inpaktua.
Hain zuzen ere
performance-aren arte ekintza
erruduntzera doa eta,
guk-guri-gu
zen hori bera.



Lanak alboko testu birziklatua behar du
bistakoa dena kontzeptu korapilatsuaren jopua delako.

Bitartean
ikuslegoaren gainbegirada hurrengo gorputzaren bila doa
lurra den pedestalaren gainean dauden artefaktuetan
ezer aurkitzen ez dutela.

Zurarik gabe kea da iraultzaren keinu oro,
adornoz beterik baitago diskurtsoaren gorputz biluztua.

[Abstrakzioaren zoko honetan murgildurik bukatzen dut
beti; gozoa da haren zaporea.
Museoan artista naiz, ama.]


Irati Oskoz



AZKAZAL BERNIZA

Tentu handiz tindatzen nabil esku oinetako azkazalak. Supermerkatuan erositako pote txiki horretatik tantan gorriak isurtzen noa. Gutxinaka, azalik ukitu gabe, atera gabe. Tiradera hondoan gordea nuen odol koloreko laka hori, eta odol koloreko lakak tiradera fondoan gordea ninduen ni. Putz eginez sikatu bitartean aldaketaren zain nago: ni aldatuko edo gainontzekoak akaso. Kaletik mundu guztiaren bistan egongo dira nire esku apainduak, begiraden bila eta haien menpe. Noiz eta zergatik utzi nion azkazalak margotzeari, hori badakit, neskato aldarrikatzaile gazteriaren eboluzio naturala, alegia. Orain ere berariaz egindako hautu politikoz mozorratu nahi nuke, ondorio sakonik ez ordea azkazal-esmalte kolore "cherry"-aren inguruko gogoeta inprobisatu honek. Potea itxi eta tiradera gainean utzi dut, behin irekita ezin berniza berriz lehortzen utzi. Eta bihar soineko bat erosiko dut.

Irati Fdz. de Okariz Irureta



ARGIFAKTUA

Klik! Botoia leuntasun harrigarriaz mugitu da, irrist egin du nire atzamarren tartean. Esekita dagoen lanparak erantzun dio nire laguntza deiari, eta eguzkia denaren plantak egin ditu. Zurezko sabaitik esekita dago, mahaiaren gainean, aspaldi egon ez den bazkalondoen testigu da. Argia gorria da, alanbre fin horretan sugarrak somatu daitezke. Gorroto ditut argi zuriak, hezur muina hozten dituztenak. Metalezko geruza fin batek babesten du argia, inork ez diezaion minik, edo, egin. Lanpara Erdi Aroko zaldun baten burua da, armadura ta guzti, sabaitik urkatuta. Hemoglobina ordeztuak jariatzen ditu. Hautsa metatu zaio barruko aldean, putz eginagatik ez da gai iragan aztarnak kentzeko. Zintzoa da lanpara, ez da azpijokotan ibiltzen, baina argiak ahanzturaz bustitzen du egongela dena. Etxeari jabea falta zaio, baina beheko sua beti dago piztuta.

Harri Diaz de Heredia Matanzas

NIRE HARTZ PARTIKULARRAK

Telazko hartzei besarkaturik
hartu ohi nuen
lo.

Euren buru txikiak
nire bularraren kontra,
bihotz jostalari baten
taupadak
aditu zitzaten.

Zer du hartzak piztitik?

Santanderreko hotel batean
aurkitu nuenak
oihal gorrizko larrua zuen.
Txikia eta arina,
izarapean galtzen den horietakoa.

Amak oparitu zidana
zuria zen.
Zuria eta belarri handikoa,
sabela ukituz gero barrez
lehertzen zena.




Baina adinaren kontzientziaz edo
oheko hartzak apaleko hartz bihurtu ziren behin,
eta haurrak ez garela diogun
erraztasun berdinarekin
igaro nintzen
telazko hartzak besarkatzetik
hezur-haragizkoak besarkatzera.

Zer du hartzak piztitik?

Orain nire moduko
larrua dute,
irribarre salatari bat ezkutuko
letaginen adierazle.
Noizbehinka datoz,
kamisetak alkohol tantaz
ziprztindurik,
haragia haragi gose.
Egunak argitu orduko
noizbehinka datozenak
beti doaz.


Zer du hartzak piztitik?

Zalantzati esnatzen naiz.
Ez daukat argi



hezur-haragizkoak direla
diotenek
ez ote dituzten botoizko begiak.
Ez ote dituzten josturazko belarriak.
Kotoizko bihotzak.

Ohe ertzean ahazturiko galtzerdia
euren gizatasunaren
adierazle bakun.



Diskonfort zona

*Gu geu bihur gaitezen gure etsai okerrena,
elkarrekiko kabroiak izan gaitezen.*

MAITE ZAITUZ, KARLISTA



*Nobela historiko baten kapitulu bat idatzi behar duzu,
eta ezin da XX. mendean girotua izan.*

Burua argitu beharra dut, kanpora atera eta arnasa hartu. Etxeko lau paretetatik kanpo dauden larreak ez dira nahikoa, urrunago joan behar naiz. Papera eta grafitoa ere beharko nituzke, idatziz uzteko azaldu nahi dudana, azaldu behar dudana. Nola explikatu, zuretzako onena bilatzen duen horri, haren idealen kontrakoaren etxean bizi nahi duzula betirako? Nola egin zure sinesmen propioen kontra? Amak ez nau inoiz barkatuko. ()-an gora joan naiz, tiro hotsak urrun entzuten dira hemendik, ez nago arriskuan, liberalek ondo zaindua dute zonaldea, eta karlistek ez dute oraindik () erasotuko, hori esan dit ()-k.....



[Eta horrela geratu zitzaidan. Eskerrik asko lagundu didazuen guztioi baina nobela historiko bat idazteko gazteentzako sari literario bat irabaztea baino askoz ere gehiago behar da: sorpresa. Idazten saiatzeko egin dudan gauzarik erabilgarriena mapa mental txiki bat da (behean atxikituta), eta hori ere hemen duzue, zeregina bete ez dudanez gutxienez saiatu naizela erakusteko. muxu bat hurrengo toti martinez de lezea nintzela pentsatzen zenuten guzti horiei.]

Irati Fdz. de Okariz Irureta



HOMOSEXUALARENA

*Literatura esperimentalean esperimentatu
homosexualitatearekin*

Zalantza sartzen deneko une batez
otu zitzaidan galdetzea:



Nor naiz ni?

Tik tak

Erlojuaren soinu mingots nekrofagoaren soinuaz
azaleratu zitzaidan barne

neokonszientzia pseudokonszientea

Esan bako eta esandakoaren arteko
ezberdintasun gardenaren txilioa

Nik besterik ez ostonduriko

altxorra

Tak tik: Zintzoa izateko ordua t'erdi

Psikosi alderantzizkatuaren

beldur funtsbakoan

bakerik bada?

Kromatismoa kobazuloan

Lehen amodioa izarapean
Izandakoaren kronograma aurrebiografikoa

Tik tak tok

Pas de bonheur

Tok tik tak

Denbora den lasaigarria

Ingurua den babesa

Eta horman dagoen eslogana:

Be gay, do crime

Harri Diaz de Heredia Matanzas



RADARRA

Ez egin poema kaxkarra, errima ezazu radarra, txarra, zaharra, marra, beharra, tabarra, biharra eta senarra.


Nire atzetik dabilen radarra
kale-ixkin guztietan ematen dit tabarra.

Desesperazio hutsetik galdetzen dut haren biharraz
jakinda nire aurpegia ez dela horren zaharra
onartuz ondorioz, hura miatzearen beharra.

Esan ohi da ez dela horren txarra
birpatsatzea kontrola eta segurtasunaren arteko marra.

Kamera deituriko polizia dut orain senarra.


Irati Oskoz



POESIA EROTIKOA?


Nahiko argi dago, ezta? Poesia idatzi, poesia erotikoa.

Irribarre konplize bat egin diogu elkarri
tabernako bi izkinak elkartuz
kasualitatetik gutxi izan duen komuneko ilaran elkar
ezagutu
kortesiazko lau hitzak partekatu ondoren
- Kanpora piti bat erretzera joan nahi?
galdera
biotatik inork erretzen ez duenean
tabernako berotik kantoira egin dugu bidea
aurkitu dugun lehenengoak utzitako tabakoa liatu nahian
dabilela
hitzak jada soberan daude
gorputzek elkarrekin mintzatzea besterik ez dute
torpe xamar
mugimendu ahalik eta koordinatuenetan
hurbiltasuna kontaktua bihurtu arte
espazio pertsonal berean
barrena
partiturako noten armoniari segika
listu eta mihi e(ze)zagunen dantzan
ipurdiak esku-gosez jan
berotasunak kiskaltzearen




esperoan
busti nahian
busti nahian putzuan irrist
nahita edo nahigabe
zergatik jakin (behar) gabe ere
silueta bakarra bitara pasa da
bakoitzak bere etxerako bidea hartuta
han amaitu da
ta hemen amaitu dut
hotzik hilik
horma zuridun gelan
ohearen maindireetan baturik
bakarrik
oilo ipurdiko azalarekin
ebakitzen
izarak laztantzen
epeltasunak gorputza utzi nahi ezean
goriago jartzen
borborka dei egiten
esku propioak emandako laztanari

Noraezik gabe
zuzen
pijama azpian ezkutatutako biluzgorriaren
ertzak ukituz
bi bularretatik hasita



tempoan
zilborrean pausatu gabe
astiro
kuleroen goma alde batean utziz
ileen muga zeharkatuz
ferekatuz
lotsarik gabe
imaginatuz




Brad Pitten txokolatezko tableta, Kim Kardashianen ertzak, Eñaut Elorritaren melodia, Alaia Martinen hitzak (subkonstienteki Aitor Bizkarrenak), Olaia Inziarteren ahotsa, jaietan bakarrik ikusten duzun guaparen irribarrea, aitaren lagun bizardunaren begi berdeak, izena ere ez dakizun Doneztebekoaren errana...

burura gonbidatuz
kantoiko silueten dantza gogoratuz
lujuriaz
eskuin eskuaren zirkuluak gelditu gabe
plazeraren muinera iritsi nahian
hatzamar eta aluaren magnetismoan
arnasestua erakarri
hitzik esan gabe
gelako lau hormatan oihartzun egin du
hasperenak
erraiak bibraraziz
izterrak tentsiotik askatuz

barrenak hustuz
kanpoaldea umelduz
kuleroa putzu bihurtuz
arrausian murgilduz
barrenak hustuta amestuz.

Irati Larrañaga Etxebarria





Atal librea

Benga, ba, erakutsi zure onena.

07/14

Uda izan dut egunotan arerio
ez dakit zer egin denbora dudanean
sakelekoaren ahanzturan igeri egin
besterik ez
dut egin nahi

Artega jartzen nau
denboraren joanak
“Tenpus fugit”
edota
“Joder zahartzen hasiak gara”
biek ala biek balio didate

Bien bitartean ikasi nahi dudan hainbeste gauza
ahantzi nahi dudan beste
ia-ia

Egunen joan-jina zait krudel egunotan
sargoria sartzen zaidanean leihotik


Siberia-Gasteiz Sahara-Gasteiz dugunotan
eta tundra dudanean ohe.

Orduak badoazkit ihesi
gazteria usteltzen hasia zait
hala dut antzeman bederen
eta helduek (nonbait)
esango didate ez esateko ezer
gazte naizela gazte.

Gazte eta gazta hitz antzekoak dira
ustelak izan daitezke
arinak, mikatzak
berdeak, gorriak
amaraunez josiak

Larregi afaldu dut nik uste
deliratzen hasia nago.

Harri Diaz de Heredia Matanzas




MILA KOLOREKO DRAGOIAK


Irakasleak emandako galletak jaten ari ginela, “zergatik ametsak ez dira egia bihurtzen?” galdetu nion zirkuluan nire alboan eserita zegoenari. Berak zera esan zidan, ipuin txinatar baten arabera, amets bat egia bihurtzeko modu bakarra gauero berdina amestea zela. Egia esan, ez dakit txinatarra ote zen, edo ipuina bederen. Baina gogoan dut nola etorri zitzaizkidan burura gau hartan amestutakoak: mila koloreko dragoi erraldoi bat, eta dragoiaren gainean ni, gauza guztien gainetik hegan.

Beraz, bi gauza erabaki nituen:

- 1) Orduetik aurrera dragoi koloredunekin amestuko nuen gauero.
- 2) Ez nion sekretu txiki hori beste inori kontatuko. Gainontzeko ikasleek ere dragoi koloredunekin amestuko balute zer? Nola sartu hogeita lau dragoi gure gela txiki hartan?

Erabakiak erabaki, nire ametsetan ez zen dragoirik gehiago agertu. Azukre-kotoizko hodeiak jan eta izotz pista bihurturiko kaleetan patinatu banuen ere, ez zegoen isats urdin-berde-gorri-more horien arrastorik. Ez dakit, agian ni nintzen dragoi bat eduki nahi zuen





bakarra, agian dragoiak benetan ziren izaki ezinezkoak, agian gehiegi nahi nuen, agian azukre-kotoizko hodeiekin konformatu behar nuen!

Erdi errendituta eta erdi intuizio bati jarraiki, gelakide harengana jo nuen berriz. Galdetu nion: “aizu, zuk amestu al duzu inoiz dragoiekin?”. Baietz erantzun zidan, behin baino gehiagotan gainera, nola ez zuen ba dragoiekin amestuko? “Eta orduan...”, esan nuen, “zer gertatuko litzateke gau batean guztiok berdina amestuko bagenu?”

Urte asko igaro dira dragoi koloredunak ahaztu nituenetik. Orain gutxiago amesten dut, arinago, lausoago, baina amesten dut. Zeru gorrituetatik erortzen diren putreak eta harramazkarik gabeko eskuak. Inertziaz baino kontzientziaz hartutako erabakiak, irribarreak bueltatzen dituzten ispiluak. Mundu bat amesten dut. Mundu bat non harriak lurrean marrazteko soilik erabiltzen diren, mundu bat non denbora ez den merkantzia hauskor bat, mundu bat non bizitza ez den kolpeka mintzo. Mundu berri bat.

Eta irudipena dut, gelakide berdinari hori guztiarekin inoiz amestu ote duen galdetuz gero, baietz erantzungo lidakeela. Ez naizela bakarra. “Eta

orduan...”, esango nioke, “zer gertatuko litzateke gau batean guztiok berdina amestuko bagenu?”

Maddi Agirre Epelde



GOSEA


Belarrien atzekaldean hazten den mundruna
jario neurtuz aurrera.

Kutsaduran jaiotako neskatoak
azkazalen azpian somatzen ditugu:
gosea eta oinazea.

Atzo ni eta haur zu,
zurrumurruak nahikoa uxatu dituzula sinetsita
iristen zaio oihartzuna kideari,
lagunari, ezagunari, familiari.

Sabela petrolioz betea
eta eskuak hutsik, begiak ilun.
Madarikazioak hartuak gaude
koilararen isladan geure burua ikusita.
Gaur zu eta bihar gu.

Irati Fdz. de Okariz Irureta



BILBON NAGOENEAN

Aukera ere eduki izan ez dudan honetan, pisuko logela txikian, lo egotea baino, bakarrik egotea daukat. Behin atea itxita, lo gela soilik alokatu duzula ere dirudi dezake. Hau surik gabeko etxea izan liteke, goseari aurre egiteko beroatzerekin nahikoa baita. Askotan, hozkailua irekita uzten dut, beste mila gauza egitearekin bat doala pentsatzen dudalako, baina gainezka egiten didanean, alarma xume batek abixatzen nau, itxi dezadan. Kozina zuloak hartzen du plater busti usaina, erabiltzen ez dudan lababajillas bete horrengatik. Balkoitik ikusten dut bota beharreko zaborra, eta beste poltsa bat jartzen dut.

Esnea ekarri dut mesanotxera. Erritual egin dut gauzez gosaltzearena. Kristalezko edalontzian esne erdigaingabetua beharrean, umeen antzera, osoa hartzen dut pisu honetan. Eta gaileta handi eta ugariak sartzen ditut ahora, garesti eta urriek zentzua galdu dutelako jada.

Idazten hasi aurretik musika jarri dut: beste hitz batzuk belarrira sartzen ditudala beste zerbait kontatzeko gai naizela konbentzitzen naiz, eta desesperantzen naiz. Doinu batez jarraitzen dut silaba oro eta frekuentzia horretan, azpitestuan dago azken aste hauetan ikasitakoa



agerian utz dezakeena, gertatutakoa gertatu den, badakidan bezainbeste merezi izan duen eta ea, beste modu batean izan zitekeen, bi bizitzatzat hartzen dudan hori, hain zuzen ere, frogatzen duena.

Mugikorra ere ezkututzen dut, non dagoen eta zer dioen buruaren kobazuloan ezkutatzerik balego, pentsamenduaren lehen lerroan dudanean. Nekez saiatzen naiz sareen errealitateaz beste egiteko gaitasuna saihesten, zerbait gertatzen ari dela, ezer gertatzen ari ez denaren planto ederrak lokartzen nauelarik. Erantzuteke ditut mezuak, asteburura begira oraindik balio dutenak eta bidaltzeke, astean zehar eginbeharrekoekin gogoratzen naiz teklatura sakatzen dudanean. Mugikorretik ere, gutunak bidaltzen ditut. Hauek ikusteko ezohiko emotikonoetan aurkitzen da hiri erraldoitik berdera eramateko behar dudan zigilua.


Atzean daukat ispilua niri begira. Pantailaren kristalezko erreflexuak ez du agerian uzten nola aldatu zaidan aurpegia, begi-zuloak belztu zaizkidala, bibotea hazi zaidala, nire bekain bat beti dela hazigabea. Askotan, ispiluari begiratzen diot pantailatik, nirea den argazki bat egiteko edo. Gutxiegi begiratzen dut nire buruan bakar ordu inexistente hauetan. Kanean nabilela, autobus, aldapa, metro, geltoki, atari, igogailu, zerradura;


kamarek ederki asko aztertuko zuten jada, 360°-ko perspektibatik, nik ikusi ezin dudan guztia.

Burbuina bi norabide aurkakoetan dihoakitela, Deustu-Santutxu bidean, ni beti Alde Zaharreko zulo horretan. Ezin barneratu nabil determinazioa bihurtu dena, orduekin egin beharko nukeena. Idaztean ezin nautelako entzun ez jarraitu, hau irakurtzearekin ez da nahikoa.

Hemen ez da onenik, baina bada halabeharrez, zerbaiten hasierak zeharka kontatzera behartzen nauena.

Irati Oskoz





Instagram: @behebanda

Twitter: @BeheBanda

www.behebanda.eu

behe.banda@gmail.com

**E
H
E
BANDA.**

